

I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO
DIDAKTIKOA EGITEKO TXANTILLOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN
DIDÁCTICA ANUAL DE ÁREA O MATERIA

2018-19 Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso 2018-19

ikastetxea: <i>centro:</i>	URIBE KOSTA BHI	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	BATXILERGOA	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	2
arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	PSIKOLOGIA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>			
diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	JON BAZIL GURREA AIZPURUA KATALIN FERNÁNDEZ DIAZ PICAZO NAGORE PORTILLO BILBAO	ikasturtea: <i>curso:</i>	2018-2019

Zeharkako kompetentziak / Competencias transversales:

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
5. Izaten ikasteko kompetentzia.

<p style="text-align: center;">helburuak <i>objetivos</i></p>	<p style="text-align: center;">ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i></p>
<p>Honako hauek dira Psikologiaren ikasgaiko helburuak etapa honetan:</p> <p>1.– Psikologiako gaur egungo eredu teorikoak zein diren jakitea, eta ikerketa txikietan erabil- tzea, diziplinaren ikuspegi globala izateko.</p> <p>2.– Psikologia zientifikoaren planteamenduak zein diren jakitea, bereizteko zein diren zientziako berezkoak eta zein giza arazoak ulertzeko eta azaltzeko beste modu ez- zientifiko batzuenak.</p> <p>3.– Psikologia mundu profesionalean zer arlo nagusitan aplikatzen den deskribatzea, eta erabiltzen diren tekniketako batzuk gaintik ikustea, kontuan izateko etorkizuneko profil akademiko edo profesional bat ezartzeko.</p> <p>4.– Norberaren errealitatea aztertze- ko estrategiak eskuratzea, alderdi intelektualari, afektiboari eta jarrerazkoari dagokionez, eta bizitzako egoera konkretuetan aplikatzea, nork bere jardueraren benetako kontrola eskuratzeko.</p> <p>5.– Norberaren ikaskuntzarekin lotutako ezagutzak eta teknikak aplikatzea, lanerako estrategiak eta ohiturak hobetzeko.</p>	<p>1.– Ea badakien psikologia zientifikoak zer ekarpen egin duen giza arazoei beste modu batzuetatik aztertze- ko, izan modu zientifikoak izan ez- zientifikoak, eta badakien zein diren psikologiak zientzia moduan dituen ezaugarri teorikoak eta metodologikoak eta beste diziplina batzuen ekar- penen osagarri dela.</p> <p>2.– Ea badakien psikologiak sortu zenetik gaur egun arte egin dituen ekarpen nagusiak zein diren, eta badakien zein diren planteatutako arazo nagusiak eta gaur egungo korrante psikologikoek emandako konponbideak.</p> <p>3.– Ea badakien psikologia zer eremu nagusitan aplikatzen den eta zeinetan esku- hartzen duen, eta aintzat hartzen duen zer ekarpen egiten duten psikologia- ikuspegi desberdinek.</p> <p>4.– Ea alderatzen dituen ikerketa psikologikoan erabiltzen diren metodo nagusiak, haien ekarpenak eta mugak, eta metodo horietakoren bat aplikatzen duen hurbileko egoera errazak aztertze- ko.</p> <p>5.– Ea azaltzen duen, ikuspegi antropologiko batetik, zer bilakaera izan duen giza garunak, eta badakien zer ezaugarri bereizten duten beste animalia batzuen garunetik, ohartzeko zeinen garrantzitsua den garapen neurologikoa eta hark dakartzan ondorioak.</p> <p>6.– Ea aztertzen duen nerbio- sistema zentralaren antolaketa (batez ere, giza entzefaloarena), badakien eremu bakoitza zer arloz arduratzen den eta norbanakoaren jarreran nola eragiten duen, eta, horrenbestez, haren garrantzia aintzat hartzen duen.</p>

7.– Ea giza portaera haren genetika- eta ingurumen-baldintzatzaileekin lotzen duen, azaltzen duen faktore horiek nola elkarreragiten duten portaera desberdinak sortzeko pertsona eta/edo kultura desberdinetan, eta desberdintasun horiek balioesten dituen.

8.– Ea ikertzen, laburtzen eta balioesten duen zer eragin duen sistema endokrinoak garunean eta zer portaera eragiten dituen.

9.– Ea ohartzen den giza pertzepzioa eraikuntza-prozesu subjektiboa eta mugatua dela funtsean, eta horren gainean eraikitzen dela errealitatearen ezagutza.

10.– Ea badakien giza arretak eta memoriak zer egitura duen, zer mota dauden eta nola funtzio- natzen duten, eta ikertzen dituen gaur egungo teoria batzuek zer ekarpen egin dituzten, jakiteko zer jatorri duten gizakiaren gaitasun horiek eta zer faktorek eragiten duten haietan, ekarpen horiek nork bere ikaskuntzan erabiltzeko.

11.– Ea ulertzen duen zer den nortasuna, analizatzen dituen oinarri dituen genetika-, ingurumen- eta kultura-eraginak, hura aztertzen duten teoriak, eta garapen-fase bakoitzean behar bezala garatzeko motibazio-faktoreak, faktore afektiboak eta faktore kognitiboak.

12.– Ea badakien zein diren masen prozesu psikologikoak, haien ezaugarriak eta portaera-ereduak eta aintzat hartzen dituen, nork bere ekintzen gaineko kontrola galtzea dakarren egoeretan ez erortzen saiatzeko.

13.– Ea deskribatzen duen zer garrantzia duen psikologiak lan-arloan eta erakundeen garapenean, aztertzen dituen zer arazo sortzen diren haren kudeaketan

	eta bilatzen dituen erakundeen arazoei aurre egiteko baliabide egokiak.
--	---

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

1. Ebaluazioa:

1. multzoa. Ikasgai guztietan eta ikasgai honetako eduki multzoetan komunak diren edukiak
2. multzoa. Psikologia zientzia moduan
3. multzoa. Portaeraren oinarri biologikoak

2. Ebaluazioa:

4. multzoa. Oinarrizko prozesu kognitiboak: pertzepzioa, arreta eta memoria
5. multzoa. Goi-mailako prozesu kognitiboak: ikaskuntza, inteligentzia eta pentsamendua

3. Ebaluazioa:

6. multzoa. Psikologia eskolak
7. multzoa. Arazo psikologikoak

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Apunteen jarraipena, testuen analisia, proiektuen metodologia, talde eztabaidan oinarritutako metodologia kooperatiboa, bakarkako barne-hausnarketa lana...

Arazo - egoera eta proiektu bidez garatuko ditugu gai batzuk, konkretuki:

- 1) Drogei buruzko talde lanak egin eta gero lehen batxilergoko klaseetan egingo dituzte aurkezpenak eta tailerrak, BIZIKASI proiektuaren barnean.
- 2) Pertzepzioa lantzean, talde bideo bat egin beharko dute Filosofia Olinpiadaren gaiari loturik ("errealitatea eta itxura").
- 3) Gaixotasun mentalak lantzean, IKT ikasgaiarekin loturik sare sozialetan lantzen den itxura eta errealitatearen inguruko talde proiektuak aurkeztu beharko dituzte.

BALIABIDEAK:

- Baliabide analogikoak

Testu libururik ez da izango.

Apunteak, fotokopiak, Interneteko baliabideak, ordenagailuak, sakeleko telefonoak erabiliko dira ikerketa egiteko

- Baliabide digitalak

Ikasleek prestaturiko materialak.

Google + Drive ; bertan ikasleek ekarpen pertsonalak egingo dituzte.

Google Classroom; bertan irakasleak agindutako lanak bideratuko dituzte ikasleek.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>Gaia gainditzeko ebaluaketa bakoitzean proiektu kooperatiboak eta ariketa indibidualak egingo dira..</p> <p>Frogen balioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Frogak (azterketak) notaren %30 	<p>Frogen balioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Azterketak: Aipatutako frogak (azterketak) notaren %30 hartuko du. ● Jarrera: Notaren % 10 klasera

<p>hartuko du.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Notaren % 60 gelako lanak izango dira (ebaluaketa bakoitzeko behintzat bi garatuko ditugu): talde lan/proiektuak, gaiarekin loturiko bideoak.. • Notaren %10 ikasgelako jarrera izango da. • Ebaluaketa gainditzeko, gutxienez 10-etik 3-ko kalifikazioa izan beharko dute ikasleek esparru bakoitzean (frogak, jarrera, talde-proiektuak) 	<p>etortzea eta klaseko jarrera izango dira.. Hau da, arlo horietan huts eginez gero, notaren %10 arte deskonta daiteke.</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisisa, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p>Errekupeatzeko aukera: Ebaluaketa bakoitzean, azkenengoan izan ezik, lehen azterketa errekupeatzeko aukera egongo da, azterketa berezitua eginez edo ondorengo azterketetan galdera bereziak erantzunez.</p> <p>Kurtso bukaeran ohiko azterketa egongo da gainditu gabeko ebaluaketak gainditzeko, eta hau gainditzen baldin ez bada, ez-ohiko azterketara joan beharko dira ikasleak, ikastaroko gai guztiekin. Ez ohiko ebaluazioaren nota azterketan aterako nota izango da, hau da, ikasturtean zehar egindako lana ez da kontuan hartuko.</p>	

OHARRAK / OBSERVACIONES

Bestalde, Ikastetxeak dituen proiektuak kontuan izango dugu eskolak antolatu eta ikasleak baloratzeko orduan:

Agenda 21: Kontsumorren kudeaketa arduratsua bultzatu eta ikastetxe-ingurunearen alde lan egiteko konpromisoa baloratuko da.

Hezkidetzaren (Aniztasuna): Sexu eta identitate aniztasunarekiko errespetua eskatu

eta baloratuko da. Hezkuntza komunitatean ikasle guztien parte hartzea bultzatuko da.

HTB: Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektua adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira.. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako txantiloia erabiliko da.

IKT: Gure ikasleek bere garapenerako behar dituzten gaitasun digitalak eskuratzeko informazioa bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatu beharko dute (informazio hori jakintza bilakatzen).

Normalizazioa: Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu. Hezkuntza komunitateko kide guztien arteko euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen.